

Eta gogoratu:

- Zerbait egiten duzunean, ez jarri arriskuan zeure burua edo gainerakoak!
- Ezerk ez du justifikatzen jarrera edo sexu-eraso bat (ez drogek, ez alkoholak, ez janzkerak, ezerk ez).
- Ez du balio denak. Ezetzak ez izaten jarraitzen du.
- Norbaitekin ligatzeak ez zaitu behartzen zuk erabakitako mugetatik harago joatera.
- Eraso bat pertsona batek beste baten gainean egindako botere-abusu bat. Ez da gatazka bat, ezta gaizki-ulertu bat ere.
- Zure janzkerak edo dantzatzeko moduak ez dio ematen inori zu ukitzeko edo jazartzeko eskubiderik.
- Txiste edo iruzkin sexistak egiteak eta/edo horiek onartzeak matxismoa betikitzen du.
- Ekin eta ekin aritzea jazartzea da. Jazartzea erasotzea da. Ez ezetz da.
- Eraso bat norbait erasotua sentitzen denean gertatzen da.
- Eraso matxista bat ikusten baduzu: entzun, lagundu eta joan puntu more batera edo erabili aurreko orriko baliabideak.
- Jazartuta sentitzen bazara edo eraso sexista bat jasaten baduzu, bilatu laguntza.



Espainiako Eskauten taldeko
kide bazara, gure Salaketan
kanala erabil dezakezu.



SECRETARÍA DE ESTADO
DE IGUALDAD
Y PARA LA ERADICACIÓN
DE LA VIOLENCIA CONTRA LAS MUJERES
DELEGACIÓN DEL GOBIERNO
CONTRA LA VIOLENCIA DE GÉNERO

Eskauten puntu morea

MATXISMOAREN AURKA, ESKAUTISMOA

ZER DA ESKAUTEN PUNTU MOREA?

Eskauten testuinguruetan jarduteko gune bat da eta indarkeria matxisten aurrean sentsibilizatzeko, erasoak prebenitzeko eta erasoetan esku hartzeko lan egiten du, gune seguru batean arreta goiztiarra emateko aholkuak emanez eta baliabide espezializatueta bideratuz.



Jazarpen fisikoa: jasotzen dituen pertsonari edo taldeari molestatu edo gaizki sentiarazten dioten musuak, besarkadak edo ukituak.

Ahozko jazarpena: nahi ez diren iruzkin edo txantxa sexualak, itxura fisioari buruzko iruzkin iraingarriak, irainak eta pertsona edo pertsona talde bat mintzeko, barregarri uzteko edo gutxiesteko egiten diren iruzkinak eta isekak. Nahi ez diren piropoak edota ezetz esan eta ekin eta ekin aritzea. Jazarpentzat joko dira ere sare sozialen bidez partekatzen direnean.

Ahozkoa ez den jazarpena: beldurtzeko asmoz egiten diren begiratu desegokiak eta lizunak; eskatu gabe eduki sexual inplizitua duten argazkiak edo irudiak bidaltzea, material pornografikoa, material pornografikoa ikustera behartzea edo jarrera exhibizionistak.

Sexu-abusua: edozein harreman fisiko haragitzarekin ala gabe eta indarkeria fisikorik, beldurtzerik edo onespenerik ez dagoenean.

Bortxaketa: pertsona baten onespenerik lortu gabe edo indarkeriaren edo mehatxuen bidez onespenera lortuta harekin sexu-harremanak izatea.

Sexu-erasoa: indarkeria erabiliz eta beldurrarazita pertsona baten sexu-askatasunaren aurka doan edozein jarrera.



ESKAUTEN PUNTU MOREAN LAGUN ZAITZAKEGU, ALABAINA:

Informazioa bakarrik behar baduzu:



Indarkeria matxistan aditu direnek erantzungo dizute.

Deitu
016ra

Inork deitu duzunik ez jakiteko, ezabatu deia deien historiatik eta ez da fakturan ikusiko.



Bidali
WhatsApp bat

600 000 016 (WhatsApp)



Bidali mezu
elektroniko bat

016-online@igualdad.gob.es

Larrialdi-egoera batean:

Adibidez, biktimaren bizitza arriskuan dagoenean edo sexu-eraso bat bada.

Deitu zenbaki hauetara:

112 Larrialdiak
091 Polizia nazionala
062 Guardia zibila

Eskaneatu QR kode hau mugikorrean **ALERTCOPS** aplikazioa deskargatzeko, polizia larrialdi-seinale bat bidaltzeko eta non zauden adierazteko balio du.

